

B17

Piloxic jaio ninçan, pilox nago...

Ahapaldi hau B2, B3, B4 eta B15 poemen idazkera eta ahapaldi-egitura berean idatzia da (tertzeto endekasilaboak, -AA, -BB, -CC, -DD errimarekin), baina ez dugu aurkitu leku egokirik horietako batean ere txertatzeko.

Edukiari begiratuta, ez dago arazorik ahapaldi burujabe legez irakurtzeko ere.

<1187r> Piloxic¹ jaio ninçan, pilox² nago,
 piloxic ilgo nax ni guero bere;
 ezteust³ agaiti anse⁴ bapere.

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

izenb. Testu nagusiaren eskuinean beste tinta batez idatzita dago, orrialdearen eskuineko goiko ertzean.

¹ *Piloxic*: ‘biluzik’; *piloxic* forma agertzen da eskuizkribuko beste poema batean ere (A23: 58), eta ondo lekukotuta dago *OEHN* ere, “V-gip” markarekin, eta hain zuzen Lazarragaren hizkeraren hurbileko inguruetan. Cf. *OEH*, s.v. *biluzik*: “(B, BN-*arb*), *bilosik* (V; Añ (V)), *biluxik* (AN-*ulz*, B), *bilutsik* (V-gip), *bilusik*, *bilotsik*, *bilozik* (A), *biloisik*, *biloxik*, *biloxik*, *bilozik*, *bilotxik*, *buluzik*, *bulusik*, *pilotsik* (V-gip), *pilosik* (V-gip). Ref.: A (*billosik*); Etxba *Eib* (*billutsik*), Iz *ArOñ* (*pillósik*), *UrrAnz* (*pílllo(t)sik*), *Ulz* (*billuxi*); Izeta *BHizt* (*biluxik*); *Gte Erd* 136 y 209”.

² *pilox*: Atzizkirik gabeko aldera (*pilox*) ez da *OEHN* agertzen (s.v. *biluz*).

³ *ezteust*: ‘ez dit ematen’; hiru aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan **edutsi* aditza ‘eman’ adieran: *asco deusut esquerric* (A14: 14), *Linda damea, asco deusut / nic aregaiti esquerric* (A23: 27-28) eta *ezteust agaiti anse bapere* (B17: 3).

⁴ *anse*: ‘ardura’; eskuizkribuko beste leku batean ere (A14: 32) agertzen da hitz hau (*eztau edugui ansiric*), eta han zuzenketak (*anse / ansi*) bokalaren tinbrean zalantzak zituela salatzen du.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B17 – Piloxic jaio ninçan, pilox nago...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago